

**ALDI BATERAKO ERREGULAZIOAN DAUDEN LANGILEENTZAKO
OSAGARRIEN HIRUGARREN LUZAPENARI BURUZKO ERABAKIA.**

2021eko ekainaren 1eko bilera, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko lantaldeak honako hau ERABAKI DU, kide guztien adostasunarekin:

LUZATZEA Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak 2020ko ekainaren 18an hartutako erabakia. Horren bidez, osagarriak ezarri ziren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean zeuden eta urtean hogeita mila euroko (20.000) edo gutxiagoko kotizazio-oinarria zuten langileentzat.

Nola hasierako akordioak hala orain arte Elkarrizketa Sozialaren Mahaian onartutako luzapenek koronabirusaren pandemiaren ondorioz izapidetutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEE) –modalitate guztietakoak– arautzen dituen Estatuko araudi bereziak irauten duen bitartean neurri osagarri horri eusteko helburuari erantzuten diote.

Ondorioz, ABEEak 2021eko irailaren 30era arte luzatzen dituen 11/2021 Errege Dekretu Legea onartuta, data horretara arte LUZATU da, halaber, 2020ko ekainaren 18ko erabakian ezarritako osagarria.

Bilbon, 2021eko ekainaren 1ean.